

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Uztarroze



Aurkibidea

Udalerria: Uztarroze

Sarrera



Nafarroako ipar-ekialdean dagoen udalerria da. Erronkariko ibarreko laugarren populatuena da, Izaba, Erronkari eta Burgi ondoren. Zuberoarekin egiten du muga iparraldean; Otsagabia eta Ezkarozerekin mendebaldean; Izabarekin ekialdean; eta Bidankoze, Urzainki eta Erronkarirekin hegoaldean. Irigoine, Zabalea, Espandoia eta Iribarne dira auzo nagusiak. Bonapartek, zubereraren azpieuskalkitzat jo zuen erronkaria; baina gaur egun bereizi egiten dituzte bata eta bestea, "erronkaria" beste euskalki bat delako, gainontzekoetatik bereizi behar dena. Bertako alaba zen Fidela Bernat, erronkieraren azken hitzuna; beraz, gaur egun ez dago bertako jatorrizko euskara hitz egiten duenik.

- **Biztanleak:** 192
- **Euskaldunak:** %10,93

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **6**
- Zintak: **13**
- Pasarteak: **39**
- Transkribatutakoak: **7**
- Audioak: **8**
- Bideoak: **30**

Proiektuak

- Dialektologia-EHU
- Gazte gara gazte
- Koldo Artola: Ziorditik Uztarrozeraino
- Rudolf Trebitsch-en euskal grabazioak (1913)
- Solstizioen inguruko ospakizunak Nafarroako zenbait hizkeratan emanak

Hizlariak

Jone Alastuey García (1991)



1991. urteko ekainaren 7an jaio zen Iruñean, eta Iruñean eta Uztarroten bizi izan da. Salvatierra de Escakoa dauka ama eta Uztarrozekoa aita. Jone Iruñean bizi izan da beti, baina asteburuak eta oporraldi guztiak amaren eta aitaren herrian igaro izan ditu, igarotzen ditu, eta asmo hori du aurrera begira ere. Uztarrozerekin lotura handia du, eta Erronkariko Gazte Asanbladako partaide da. [Fidela Bernat](#) birramona zuen Jonek. Irakaslea da lanbidez, eta soinua jotzen daki. Hainbat zaletasun ditu, eta hezkuntzaz, koadrilaz, Erronkariz, Uztarrozez, Iruñeaz, parranda kontuez eta hizkuntza kontuez mintzatzen da pasarte gehienetan. Miren Mantilla uztarrozterarekin batera egin genion elkarrizketa, Erronkariko Errota elkartearen.

Fidela Bernat Aracués (1898-1991)



Erronkariko Uztarrozen jaioa, Sharo etxean. Gurasoak ere Uztarrozekoak zituen. 1925ean Pedro Errearekin ezkondu zen. Sei seme-alaba izan zituzten. Erronkariko euskalkia hitz egiten zuen azken euskal hiztuna izan zen. 1991. urtean hil zenean erronkaria ere hil zela esan ohi da, nahiz eta harrezkero eskualde hartako hizkera berreskuratzeko saiakerak ere izan diren.

Doroteo De Miguel Bernat (1894)

Uztarrozen jaioa, Erronkari ibarrean, 1894an. Gurasoak ere bertakoak zituen biak.

Josefa Karrika Bernat (1908)

Uztarrozen (Erronkarin) jaioa 1908an. Gurasoak ere biak bertakoak zituen.

Victoriano Marco-Perez (1858)

1913. urtean Rudolf Trebitsch etnografo austriarrak jasotako grabaketa. 55 urte zituen grabaketa egin zitzaionean. 25 urte zeramatzan euskaraz idatzi gabe grabazioa egin zitzaionean eta zenbait arazo izan zituen narrazioa papereratzekoan. Victorianoren osaba izan zen erronkaria aurkeztu ziona Luis Luziano Bonaparte hizkuntzalariari. Euskalkia: erronkaria.

- Diskoaren erreferentzia: 2.240, 2.241 eta 2.242

Miren Montilla Adot (1994)



1994ko urriaren 28an jaio zen, Uztarrozen, eta bertan bizi izan da beti, ikasketak direla eta Iruñera joan behar izan duen arte, baina asteburuko igotzen da herrira, hala ere. Aita Uztarrozekoa du eta Itzaltzukoa ama. Anaia bat zaharragoa du. Gitarra jotzen du eta goi mailako ziklo bat ikasten ari da Iruñean. Herriko bizitzari buruz eta herri txikietan zaharren eta gazteen arteko harremani buruz eta transmisioaren inguruan jarduten du gehien eskainitako testigantzetan. Uztarroze herriarekin lotura handia duen Jone Alastueyrekin batera egin genion elkarrizketa, Erronkariko Errota elkartean.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Familia eta harremanak

1.1. Erronkariko bailara

- **Hizlaria(k):** Marco-Perez, Victoriano
- **Elkarrizketatzailea(k):** Trebitsch, Rudolf
- **Erref:** UZT-004/001
- **Iraupena:** 0:06:28. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:06:28
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
- **Laburpena:** Erronkaribarreko gizon handi batzuk. Artzainen lana eta Uztarrotzeko sute bat

Transkripzioa

Erronkariko Ballia dago Españan. Nabarrako Probinziaren, Aragokoaren eta Franziaeren artian eta Ballia konpostan dei zazpi idik, deitan beidra Uztarroze, Izaba, Urzainki, Erronkari, Garde, Bidankoze eta Burgi; tenpra guzian eta beti izan da balie kaur anitz fama ontako eta onratuk mundu guzutik, eta Erronkariarrak izan dra beti anitz azkar anitz sufrituk, eta anitz baliente, gerrara xuaitan zrenian, eta korrengatik Nabarrako Erregek egin du tenpra guziez anitz mertxede eta emon duei anitz pribilegio zerbutxi andi egiten zeinein pakatako: eta andienetarik izan zen emoitea deretxo txaietako bere aziendeki eta saldueki Bardeara deus pakatu bage. Tenpra guziez erkin da balle kontarik anitz gizon andi eta anitx meritotako gisa guziez; baya bi andienak izan dra eta obro fama emon deinek balleri, Gardeko seme bat izena beizien Pedro de Bereterra eta erdaraz deitan zein "el Conde Pedro Navarro", zeren bere tenpran izan beizen Españako Errege Katoliken Generalik obena eta andienetarik, eta anitx fama eraman zien Italiako gerretan eta guzien burian Españolak buruzagi egin zrenian Aprikan Argelez eta Tunezez. Eta bestia izan zen Erronkariko seme bat, deitan beizen Julian Gayarre eta izan zen bere tenpran kantore andi bat, eta mundu guzian erraitan dei izan dela tenorerik oben izan dena eta ezaguntu dena tenpra guziez mundu kontan. Gaxoa il zen aski gazte, bestela anitx faboreziten zien balle koni, anitx adeskide beizen bere

erriaren eta balie kontako. Balle kaur anitx ezaguntu da ere leku guzietan anitx ardi, aari eta axuri beitago, eta erostan beidite Nabarra eta Arago guzian; baitare, anitx lerdoi eta bagodoi beitago bere barnian, eta egitan da anitx zur, eta eramaitan ditei lotetuk, almadietan eguatxa barna, Zaragozara eta Tortosaradraino. Egitan da ere Balle kontan anitx ganzta eta zenbra ardien eznetik, anitx on, eta famatuk daude guzutik (daude?) guzutik; beste gaizarik ere badago, bala utzurik alte batra, Balleko gaizak xuanen naz orain eleraitra Uztarrozerik, ni kanko beinaz eta bapanak maitiena beitu betik bere gaizak. Uztarroze dago idirik gorena, beitago Franzia mugan, eta da Balleko idirik obena eta obeki konserbatan dienak gaiza eta kostunbre zar guziak; egunko egunian bizi dira iri kontan bederatzu ein arima, txiki gora bera; badu eliza bat anitx eder eta andi, anitx meritotako altare andia eta kaliz eta kustodia dutienak, orobat nola beste gaiza guziak elizarnak. Egunko egunian dago apez jeina D. Robustiano Etxegarai, eta badu ogeita bederatzu urte eliza kontan dagola; alkate da Santxo Garderen etxeko burzegia, Ulpiano Marko eta juez municipal da Julian Markoren burzegia, Bitoriano Marko, beita berbera gaiza kuek kontatan ditienak. Idi kontan izan da betik obro ardi eta saldo ezik Balle guzian eta korrengatik da ere idirik abratsena nik ezaguntu dud ene tenpran ogeita amar milla buru igarorik, bala orai dago zerbait txikiago: saldo koriek guziak xuiten dra San Migelez Erribrara eta Bardeara, eta kan egoitan dra Maiatzaradraino, zeren keben, egitan beitu negian anitx elur eta tenpra gaizto eta obenian [zamait] ila- ilabetez ezdekite erkin etxerik, eta korrengatik biartan zuei txatxi guziak neguko Erribrara; eta kan egitan dei ertzaroa eta guzia. Milla eta zortziein eta irurogei[ta] baten urtian, agorrileko amargarnian agitu zen idi kontan desgrazia anitx andi... (andi?); arrastri kartan txatxi zen menditik Paskual Gorriaren neskato bat, eta aigal gaian xuan zen oiara, eta akaituk beizagon loak arrapatu zion argia ixikirik utzurik arka baten gainian; eta eretxarri zenian ekusu zien sutan zagola arka; lotxatuk xagi zen eta xuan zen berretaren artra lotako suaren eta ezbeizagon urik xuan zen lasterka eguatxara, ezlezein eurek ere xakin; bala eldu zeneko ura guzia ixikirik erden zien; gunian iranegitan asi zen baia xuan zeneko jentia, igan zen sua sabaia, eta kan beizagon anitx auts eta belar fite ixiki zen guzia eta erkin zen sua etxe gainiara; eta olez eginik beizagon etxe gain kura eta beste etxenak ere bai, [xuan zen artuz anitz indar suak etxe baterik bestiara eta bi edo iror orenez erre zen irurogei eta bortz etxe].

2. Ohiturak eta bizimodua

2.1. Eguberrietako giroa Uztarrozen

- **Hizlaria(k):** Bernat Aracué, Fidela
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artola Kortajarena, Koldo
- **Erref:** UZT-012/001
- **Iraupena:** 0:07:00. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:07:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- **Laburpena:** Eguberrietako giroa Uztarrozen.

Transkripzioa

- Zer egitan da?
- Zer egitan den?

- Morroiak erkitan dreia karrikara kantatan ta kolaxet?
- Bai, bai, bai.
- Konta, konta beza, konta beza.
- Eta xoaitan zria guziak ese kuetan, ese gueta... “¿Cómo diré?”
- Etxe kuetara.
- Etxe kuetan. Ese guzietan.
- Ese guzietra. Eta ipitan zia “la limosna de Navidad. Niño Jesús en la vida”.
Eta mundu guziak emoitan gunia edo arraultze, erraitan durana
Karnabaletan ere, pues morroi-erre emoitan gunia, edo gianso, edo txistor.
Ta fetan zia asador bateki, ta txistorrak, eta giansoak, edo lomoak, edo
kostillak, sartan zeia asadorian. Eta [...] eta gero pues xoaitan zria
mahaiara eta egitan zeia xurginaria, el xurginari que llamábamos.
- Xurginari.
- “La Nochebuena, cuando decían”, xurgin aigaria.
- Xurgin aigaria.
- Bai. Kan egitan zeia pues mitilak. Ez neskatoak eta denak, e? Orai sí, orai
bai. Orai xoaitan dun neskatoak eta mitilak, guziak. Baia ordian ez. Solo
mitilak.
- “Pa eso los chicos iban, en dos o tres cuadrillas, por todas las casas.
Venga cantar. ¡Aquello estaría bonito!”
- “¿Y, y qué, qué cantaban?” Zer kantatan? Ay Maria, gairon-gairona?
- “No, aquello era por parte, aquello era por partes. Aquello era los chicos
pequeños.”
- Ay Maria, gairon-gairona.
- “Pero eso era los mayores. Los mozos, estos mozos mayores, vayan
ahora, que salgan la noche Navidad, la lomesna, la limosnica del niño
Jesús. Se les daba y después ellos disfrutaban, en el bar. Pero lo de los
chicos pequeños era por partes: virgen sagrada y madre de Dios, no hay
en el mundo, tal como vos.”
- Eta... bai.
- “Eso en vasco no sé.”
- Eta horrek horren gazte tenpran, horien gazte tenpran, entzun deia
euskaraz kantatan? E, ay Maria gairon-gairona ta kolaxet? Bai?
- Bai, guzia kantatan zien. Guzia banakie, bai, baia oai da!
- Sortu da jain ona, natarabitate, urterebitate.
- Urterebitate, argizagia, mila jaunia. “No sé, ya se me ha olvidao.”
- “Eso cantaban las chicas. Los chicos: virgen sagrada y madre de Dios, no
hay en el mundo tal como vos. Aquí había unos cuatros términos.”
- “Sí, tres o cuatro versos, que ellos bajaban eso en las casas, cantando. Y
les bajaban.”
- “Y las chicas, las chicas, las chicas” otxangureki...
- Arkantxaliekie, gaur kantatzera, gore semiaren, Xinko semiaren,
adoratzera.
- “Ya se me ha olvidao eso.”
- Adoratzera.
- Adoratzera.
- Eta bueno! Nabitata eta gero xoaitan gintia ake za..., ake zanian xoaitan
gintia eta emoitan zeia bi zentimo, edo lautako bat, eta ordian zia anitx!
Aketan, aketan.
- Ordian zen anitx.
- Eta ni ere xoaitan nun ese batra kan dia la amanderra. “¿Ya me has
entendido? Allá tengo la madrina.”
- “¿La? Madrina.”
- “La madrina.”
- Amanderra.
- Amanderra, “que se decía”. Edo aitaderra. “Otro.”

- "El padrino."
- O tia bat. Bete ese, eta karek bazia guzientako. Bapana berarentako, azkaziak, "pues distinto." Edo girlatx, edo sagar, edo naranja ona, edo, edo... "pues, distinción."
- "Turrón, o una cosa así."
- "Distinguía, cada una, a ti porque ya eres de pariente. Y ya sabías. Y nadie, de las otras nadie decía nada, de las demás, porque aquella ya sabía que era pues cada uno su pariente, la distinguía."
- E, Izaban entzun nien, e, etxe abratsetan, e, abratsez emoitan zeila obroago.
- Obro, obroxao, obroxao.
- "O sea, como que en las casas buenas..." (...) Ari guzietarik.
- Horietarik guziei, ese abrasetan bai, bai, distingitan zreia, bai. Bagunia, bai.
- Bai, bai.
- Bai, xoaitan ginzia, ai, a ver emonen dein, a ver, turronak, edo mazapanak, edo... ya distingitan zia, hombre!
- Bai. Eta gero etxera xoan eta zer egitan zen, e, aigaritako?
- Pues... aigaltako?
- Aigal ona egitan zen, e?
- Ona, "y tan" ona! Pues guziek eta [...] bai gaiza guziak eramaitan guniena. Eta zer danza eta dor, zer tosta, ene seme! Bes... lenao bigunien etxea, kar, "ande la bar de Sacristán, teníamos la casa antes nosotros, que la quitaron pa hacer la carretera."
- "¿El bar de Sacristán?"
- "Sí."
- "¿Ya no hay ese bar, no?"
- "No. A la parte abajo era nuestra casa."
- "Ande has dejao el coche."
- "Sí."
- "Ahí teníamos..."
- "Donde el Latsa."
- "... teníamos nosotros la casa."
- "Eso, Latsa. Ahí teníamos nosotros la casa."
- "Y pa hacer esta carretera que va a Salazar nos pusieron esta. Y la quitaron."
- "Pa hacer la carretera nos dieron esta. El ayuntamiento hizo eso. Compró, compró otra, después la hicieron toda nueva, desde abajo, paredes y todo [...]"
- "Es que ahí entre nuestra casa, y lo que era el Latsa, salía así un cabezón de piedra, y no podía pasar, el coche pequeño justamente. Y venga poner carteles, pero los del pueblo eran los primeros que pasaban. Había pocos coches, ¡pero! Coche que pasaba, ¡hala! Te llevaba todo el tabique por delante."
- Eta balkonetra argitan zreia morroiak, eta tosta, eta kanta, ta "viva Navidad", eta... Ta gai kartan, pues gaia guziek aigaltra. Pero lenau bagunian laur egun, edo zomat? Bijiliatako. Ta bijilia, pues guziak egitan zian pues besugoa, eta gero kastaña egosi, edo sagar, edo [...] Eta kafeak eta kopak. Bai, bai! Disfrutatan gunia, bai!
- Bai.
- Lenao ere.
- Eta, bazen, ba, bazen, bazena tipiko, tipiko gisa aigari bat keben? Zer, zer usai, usatan zen? Zer kostunbretan zen ken, keben etxetan...
- "Ah, no sé, yo no sé de eso. Cada uno hacía su cena a su manera." Balin bazien txerri, pues igual kostillak, edo lomoak, edo aigari, en buena armonía. Eta besugoa.

- Besugoa. Besugoa zan tipiko.
- Besugoa, besugoa bai. Bai, bai.
- Besugoa, eta turrone ere bai.
- Eta... a, turronak ere bai. "Aunque sea el más..." bazagon.
- Bai, girlatxeak eta.
- Bai, bazagon, gai kantako guziek erostan gunia turrone. Kori bai, bizi guzian. "El día Navidad, siempre." Eta Karnabaletan eta, disfrutatun gunia. Baskaria on, edo aigarria, edo...
- Bai.

2.2. Uztarrozeko San Juanetako ohiturak

- **Hizlaria(k)**: Bernat Aracués, Fidela
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artola Kortajarena, Koldo
- **Erref**: UZT-013/001
- **Iraupena**: 0:02:59. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:02:59
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
Aisia » Jai-giroa » San Juan
- **Laburpena**: Uztarrozeko San Juanetako ohiturak.

Transkripzioa

- Badakiguna, bai. San Juanen, eguatxara, zankoen ikuztra.
- Hara... kori, kori.
- Guziak, zankoen ikuztra eguatxara. Pues zia kostunbrea eta joaitan gintzia.
- Goxeanik, goxeanik.
- Bai.
- Argi puntan?
- Ez, berantao.
- Berantao.
- Ene tenpran goix baino lenao, pues betik, eguatxara.
- Eta zoin lekutra? E... latsaren zibiaren ondora?
- Bai.
- Korra?
- Latsaren... kan badagoa regatxo bat.
- Bai.
- Eta regatxoa barna eguatxara. Eta beste etxe bat latsaren ingurian, berste bat... etxe bat eta gero gorria. Zubian gorria, eta gero gentu zia kori eta egin zeia bestea, aiuntamentia izari zian. Gentea bata eta bestea izari zian. "Pero a cambio, eh?"
- Ta gente anitx xoaitan zena, e, zankoen ekuztra?
- Pues, e, neskatoak! Neskak!
- Mitilak ez.
- A, guziak.
- Guziak.
- Joaitan zina guziak. Nik ez nian xoan, e? Baia joaitan zina guziak [...].
- Horren tenpran xa ez?
- Xa ez.
- Ez, e?
- Eni quartanik ez zegoen. "Por lo menos en cuadrillas, así."
- Eta gero, gero zer beste egitan zein?

- Pues gero deus ere ez.
 - Allurkotra xoan eta zomait, e, bueltaxko? Uzulukaka edo?
 - Eta tostara, beti, karretetan. Morroiak xardinera eta maztek tokoara.
 - A!
 - Entelegatu?
 - Bai, bai, bai. Izabako mazte batek erran zitan, erran zien neri, niri, eta zanko..., zankoak, e, ekuz ondo, xoaitan zrela zomait allurkotra ta ebiltan zrela uzulukaka.
 - A, uzulukaka?
 - Bai.
 - Eta zertako? Uzkiaren pelotako.
 - Eztakiet, eztakiet. Eta gero biltan zeila sanjua lili, ona bizagon, e, flemontako. Sanjuanlili, sabuko, biltan zeila...
 - A, kura bai, biltan gina, eta gununian flemoneta zartagunian, kala xan eta hagintza saltan.
 - Sopera batan izarita.
 - Bai.
 - Bai. Ta buria tapatuta, e?
 - Ta alientoa, alientoa [...].
 - Kori bai, korrek ezagutu dia? Izaguntu dia?
 - Nik sabukoa bai!
 - Bai?
 - Bai. [...] sopra batea eta izar alientoarendako. Baia gunienez hagin-min, eta flemon, kori zian txor.

2.3. Uztarrozen, inoizko San Juan ermitara joaten omen zenekoa

- **Hizlaria(k)**: Bernat Aracué, Fidela
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artola Kortajarena, Koldo
- **Erref**: UZT-013/002
- **Iraupena**: 0:02:11. **Hasi**: 00:02:59. **Bukatu**: 00:05:10
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
 Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eraikuntza erlijiosoak
 Aisia » Jai-giroa » San Juan
- **Laburpena**: San Juan ermita. Hara joateko ohitura zegoen, baina bera ez omen zen inoiz joan.

Transkripzioa

- San Juan, e, bezperan, zer egiten zen keben? San Juan bez(peran).
 - San Juanen dagon punta ka(r)tan, handik gora.
 - Zer da, eliza bat?
 - [...]
 - Eliza bat? Ermita?
 - Ermita.
 - Bai. Bada mendian gora?
 - Baina ni, pero ahí gora! Pikarra ka(r)tan. Baia bazeian beren "día que" baita, eramaitan zreia, eta kan egitan zeia. Nik ez diar ekusi. Pues baskariak et(a) todo eramaitan zeia kara.
 - Baina, San, eta San Juan egunean, goizean, goizean, goxan, goxan, zer egitan zen?
 - Eztakiar! Eta eztakiar nola, noiz, zren festak kan. Ezin naz eltu, eztakiar. "Más que" San Juan egunian, fiestak. Baia San Juanian. Baia kara xoaitako,

elizara, ez dakiar nola.

- Ez tea egon, kan gora, gora?

- Ez, ez, ez! Nik ez.

- Anitx urrindik dago?

- Urrin. Punta kartan! “Ven aquí”, punta kartan!

- Bai, bai, bai, bai.

- Ge(r)o “en San Juan”, ekustan duna kan urdu dela karretera dagola?

- Bai, bai, bai.

- Pues egin zeia orai urtian “o el año pasao, no sé cuándo, para buscar petróleo”.

- Hara!

- “Andaban desde allá tienen todo hechos carretiles”. Pos... Gore pista batan ere eramaitan zeia, egin.., irristan zeia anitx, irristatu. “Pa salir a Mintxate, que se decía”.

- Bai, bai, bai.

- Y... baia ezteia hel... (e)ta egin zeian... Pues kan zegoan San Juana, punta kartan.

- Eta zeren ez da iñoiz ere egon? Zerengatik? Zerengatik ez da...?

- Nik ez dakid, eztakiar. Eztakiar deus.

- Hiriko jentea ez zena xoaitan?

- Xoatan zia. Bazeia egunak xoaitako kara, eramaitan zeia xatako. Kan egitan zeia bazkariak et´oro.

- Baia hori ez zen xoaan...

- Nik ez, nik ez, ez nun eltu. Zer generazione al zenez doi? “Así que ¿qué generación estamos en el mundo?”

- Eta zer, orai txutirik dago?

- “Yo de oír que contaban, pero saber no”.

- Orai txutirik dago?

- Orai? “Bien... ya nada!”

- Ermita hura? Ez?

- Guzia mendi, orai.

- Bai, bai, bai.

- Guzia mendi. Orai nada.

- Erori zen, erori.

- Nik ez nian izaguntu deus ere.

- Orai ez dago.

- Más que erraitan zeina.

2.4. Gabon-kanta, izatez zuberotarra, Uztarrozen

- **Hizlaria(k)**: Bernat Aracué, Fidela
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artola Kortajarena, Koldo
- **Erref**: UZT-013/003
- **Iraupena**: 0:03:50. **Hasi**: 00:05:10. **Bukatu**: 00:09:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
 Ohiturak eta bizimodua » Katak » Bestelako katak
 Ohiturak eta bizimodua » Katak » Kantei buruzko azalpenak
 Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- **Laburpena**: Gabon-kanta bat (izatez zuberotarra) kantatzen du. Kantaren inguruko azalpenak. Beste kanta batzuk ahaztuta ditu. Poltsarekin irteten ziren eskean.

Transkripzioa

- "¿Cómo era esa canción de...": otx aingurieki? Otx aingurieki...
- "Bah, no la sabe".
- "Un poco sí". Ox aingurieki, arkanxali....
- Arkanxaliek,
al kantatzera,
gore erregiaren
xinko semearen
adoratzera,
gore erregiaren
xinko semearen
adoratzera.
- Baduaz ar(t)zaiak
haren inpe laia
lasterrez oinez
xakin al lironez
ea sortu zenez
Jesus Belenen,
xakin al lironez
ea sortu zenez
Jesus Belenen.
- Baduaz ar(t)zaiak
haren inpe laia
lasterrez oinez
xakin al lironez
ea sortu zenez
Jesus Belenen,
xakin al lironez
ea sortu zenez
Jesus Belenen.
- "Eso es: si hubiéramos sabido, que Jesús había nacido".
- "Habríamos..."
- Lasterrez "quiere decir que corriendo hubiéramos ido, hasta descalzas, a adorar".
- "Eso es, eso es".
- "Y era eso". Xakin al... "Si hubiéramos sabido es": xakin al lironez.
- "Eso es. ¿Y el comienzo cómo es?" otx ainguriekin o guazen?
- Guazen aingurieki.
- Guzi, guazen, ez?
- "Primero se empieza" guazen aingurieki.
- Guazen...
- Arkanxaliek
a kantazera
gore erregiaren...

- "Sí, sí, sí, sí."
- "¡Si no lo digo con la tonada, no me sale!"
- "¿Y la tonada cómo empieza?" Guazen? Guazen aingurieki...
- "Sí, eso es. No me sale, tengo que hacer llevando todo ya la letra como me sale, repetir y todo."
- "Con la tonada, con la solfa."
- Xakin al lironez "es, que si hubiéramos sabido que Jesús había nacido, iríamos a todo correr, y descalzas, descalzos."
- Belainez, ez? "De rodillas."
- Antxume, bai. Antxumi eta oinez. "Corriendo..."

- "A adorarle."
- "... a adorar."
- "Todo, está bien, para servirle."
- "Es bonito, es bonito, ¿eh?"
- "Sin embargo, las que cantábamos las chicas, no tengo presente."
- "Y había otro que era... otro que era": Ay María, gairon-gairona...
- "Eso es, pero mira, no me sale eso."
- "Y a mi tampoco".
- Sortu da...
- Ay María
gairon-gairona,
urtelabitate,
matelebita...
argizagia
mila daunia...
"No, ya no me sale. Me he perdido y no."
- "Sí, sí."
- "Y sin embargo el guazen. Eso la cantábamos nosotras por la noche."
- "Es que fíjate, los años que hace eso."
- "Cuando íbamos a pedir por las casas con el zacuto, cuala podía llevarlo más majo. El zacuto, pa que nos echaran al zacuto. Llegábamos a una casa que veías que es algo pariente, ya te hacías un poco... bue(no), ya sabías que te habían de mandar un poco más. Y así, era, muy bien. ¡¿Y los chicos?! Los chicos de antes estaba muy bien. Virgen sagrada, y madre, esos todo en castellano."
- "Madre de Dios, no hay en el mundo tal como vos."
- "Virgen sagrada y madre de Dios, no hay en el mundo tal como vos."

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Aurkezpena (Uzt-005/001)

Jone Alastuey Garcia 1991eko ekainaren 7an jaio zen Iruñan eta bertan bizi izan da. Ama aragoitarra du eta aita berriz nafarra, Uztarrozekoa. Bi anai-arrebetatik zaharrena da bera. Irakaslea da orain eta unibertsitateko ikasketak burutu bitartean ere lanean aritu da.

2. Aurkezpena (Uzt-005/002)

Miren Montilla Adot 1994ko urriaren 28an jaio zen eta hamasei urtera arte Uztarroztarrozen bizi izan da. Bi anai-arrebetatik gazteena da bera. Gurasoak nafarrak ditu biak, aita Uztarrozekoa eta ama Itzaltzukoa. Goi-mailako ziklo bat ikasten ari da orain.

3. Iruñatik Uztarrozera eta Uztarrozetik Iruñara I (UZT-005/004)

Jone zein Mirenek Iruñarekin eta Uztarrozekin duten harremana nolakoa den kontatzen dute. Jone Iruñan hazi eta hiria gustuko duen arren, orain nahiago du Uztarrozeko giroa. Mirenek berriz, bere haurtzaro zein nerabezaroa Uztarrozen pasa du eta batxilergoa egiteko garaia iritsi zenean, Iruñara joan behar izan zuen. Iruñan bizi den arren, astebururo itzultzen da herrira.

4. Iruñatik Uztarrozera eta Uztarrozetik Iruñara II (UZT-005/005)

Uztarroz Iruñatik 110 kilometrotara dago, baina herrian familia dutenentzat astebururo bidaia hori egitea ohikoa da. Aste tartean, berreogeita hamar pertsona inguru bizi dira gehienak guztiak zaharrak. Miren haurra zenean, zazpi haur bakarrik zeuden herrian, jada denek alde egin dute. Hala ere, aurten haur bat jaio da.

5. Harreman intergenerazionalak (UZT-005/006)

Uztarrozeko haurren bizitza nolako zen kontatzen du Mirenek. Herri txikietan herritarren arteko harremana bestelakoa da eta adina ez da biztanleen arteko harremanak arautzen duen faktore bat.

6. Ikasteko herria utzi beharra (UZT-005/008)

Mirenek herriko eskola txiki batean ikastearen eta Iruñan ikastearen arteko desberdintasunaz dihardu. Izan ere, derrigorrezko hezkuntza bukatu ostean Erronkariko ibarreko gazteek institutura joateko Iruñara joan behar dute.

7. Eskola txikiak eta eskola handiak I (UZT-005/010)

Mirenek ikasle gisa eskola txiki batean ikastea nolakoa den kontatzen du eta Jonek berriz, irakasle gisa eskola txiki batean lan egitea nolakoa den. Eskola txikiek bere alde onak eta txarrak dituztela diote.

8. Eskola txikiak eta eskola handiak II (UZT-005/011)

Eskola txikiek hezkuntza dinamika berriak probatzeko aukera ematen dute. Hala ere, Joneren ustez eskola txikietako hurrak autonomia gutxiago dute irakaslea euren atzetik ibiltzera ohituta daudelako.

9. Uztarrozeko xaiak I (UZT-005/012)

Jonek eta Mirenek Uztarrozko inauteriak girotzen dituzte herriko beste musikariek. Beste herrietan fanfarreak alokatu behar izaten dute, baina Uztarrozen musikariak izateko zortea dute. Festak nolakoak diren kontatzen dute.

10. Uztarrozeko xaiak II (UZT-005/013)

Herriko festetan auzo bazkariak egiten dituztela diote. Uztarroz kale-auzotan banatzen dela kontatzen dute. Herriko festetan, nor bere auzoko auzo-bazkaria eta herri-bazkaria egiten dituzte.

11. Erronkari ibarreko hezkuntza-aukera D ereduan (UZT-005/015)

Miren txikitatik Erronkariko musika eskolara joan da. Hala ere, honek ez ditu urte asko eta Jonek uste du D ereduarekin batera sortu zela musika eskola. Mirenek Erronkariko eskolan eta D ereduan ikasi duen arren, bere anaiak ez zuen aukera hura izan.

12. Hezkuntza euskalduna eta euskara Erronkariko bailaran (UZT-005/016)

Miren eta Jonek D eredia Erronkariko eskoletan eskaeragatik jarri zutela uste dute. Erronkariko eskolarekin batera, beste ekintza batzuk sortzen hasi ziren ibarrean. Gazteek euskaraz dakiten arren, bailarako helduek ez dakite euskaraz. Kebenko euskararen aldeko elkarteak bailaran sartu zenean, euskarari bultzada handia eman zion. Ordutik urtero bailarako herri batek "Uskararen eguna" antolatzen du.

13. Euskararen egoera Erronkariko bailaran (UZT-005/018)

Bailaran euskarak ez du leku gehiegi, nahiz eta gazteen artean batzuek elkarren artean euskaraz egiten duten. Bailaran sozializatzeko hizkuntza nagusia gaztelania da.

14. Autoarekiko menpekotasuna (UZT-005/020)

Autoarekiko loturaz dihardute. Herriotan bizi nahi duenak, autoa behar du batetik bestera mugitzeko.

15. Uztarrozeko eta Erronkariko bailrako gau giroa (UZT-005/021)

Uztarrozko herriko giroa intergenerazionala dela diote. Gazteak parranda bota nahi badute bailarako beste herriren batera joaten diren arren, herriko giroa bestelako dela diote. Uztarrozen adin guztietakoak batera egiten dute festa. Herrien arteko desberdintasunez diardute eta txantxa tonuan elkarren artean alderatzen dituzte bailarako herriak.

16. Musika euskalduntasunaren adierazle (UZT-005/023)

Musikari gisa jotzen duten erreperitorioa euskalduna da. Bailarako jendeak euskaraz ez dakien arren, abestiak badakizkitez eta horrek elkartzen dituela diote. Beste abesti batzuk ere jotzen dituzte "rantxerak" Nafarroan hainbesteko ospea dutenak. Tabernetan jartzen duten musika berriz tabernariaren eta jendearen gustuen arabera da. Mirenek esaterako Uztarrozeko tabernara gustuko duen musika eramaten du usb batean.

17. Gustuko musika (UZT-005/024)

Musikaren inguruan diardute, patxanga zer den definitzen dute. Alegia, taberna batera musika eramaten dutenean eta denetik dagoela esatean, denetik egote hori zer den azaltzen dute. Denetik den hori noski, euren gustuaren arabera da. Gustuko duten musika eta musika taldeak aipatzen dituzte.

18. Pirineo Ekialdeko Gazteen Koordinadora (UZT-006/002)

Zangozako merindadeko gazteek garai batean koordinadora bat zuten eta koordinadora hura biziberritzea erabaki zuten merindadeko gazte askok.

Zonalde handia den arren, gazteentzat aukerak eskeintzea zen koordinadora honen helburua herriak biziberritzeko asmoz.

19. Pirineo Ekialdeko herrien biziberritzea (UZT-006/003)

Kontu politikoan ondorioz Euskal Herriko ekialdeko (Pirineotako) herriak isolatuta daude eta bertako gazte koordinadoraren helburuetako bat herriotan ekintzak antolatzea zen. Herrietan zituzten baliabideak erabiliz astean zehar ikastaroak antolatzen hasi ziren. Ikastaro horietako bat afrosanba dantza talde bat sortzea izan zen eta Jonek dantza maite duenez bertan partehartzea erabaki zuen.

20. Dantza bizitzako pasio (UZT-006/004)

Jonek txikitatik euskal dantzak ikasi izan ditu eta dantza bere bizitzako zaletasunetako bat da. Iaz herrian euskal dantzak irakasten hasi zen asteburuan zehar. Egun, Uztarrozen bizi da eta, ondorioz, dantza irakasle gisa jarraitzeko aukera du.

21. Gaztandegia I (UZT-006/006)

Joneren aitak beste kide batekin batera gaztandegia du Uztarrozen. Bere aitaren helburua gaztandegia sortzean Erronkariko gaztaren ospea baliatuz bailaran lanpostuak sortzea zen. Jonek txikitatik lagundu du aita eta adinean aurrera egin ahala, aitak gaztandegian lan egiteko aukera eman zion. Gaztandegiaz gain, museo bat ere badute herriko jendeak gazta egiteko emandako tresnekin osatuta.

22. Gaztandegia II (UZT-006/007)

Orain irakasle dela kontaktzen du eta gaztandegiko lana beste norbaiti eman nahi diola lan batekin nahikoa baitu.

23. Birramona Fidela (UZT-006/008)

Jone Fidela Bernaten birbiloba da. Fidela Bernat erronkaria ama hizkuntza zuen Erronkariko azken biztanlea izan zen. Jonek ez zuen birramona ezagutu eta beraz, ez du mitikifatu nahi pertsona gisa. Fidelak bere ondorengoei jaio zein bizi izan zuten garaiko egoeratik ez zien erronkaria ez euskara transmititu. Zorionez ordea, Fidelaren birbilobak, Jone eta bere lehengusuak, euskaldunak dira.

24. Gazteen aisialdia (UZT-007/002)

Uztarrozeko eta bailarako gazteentzat larunbat arratsaldetan aisialdian egiten dena urtaroak baldintzatzen du. Udalak aurten gazteentzat lokal bat jarri du.. Uztarrozen betidanik eskatu dituzte gazteek eurentzat lokalak eta udalak eman ez dizkienean okupatu egin dituzte. Lokal hauei "pipera" deitzen diete.

25. Udako festak I (UZT-007/003)

Parrandari dagokionez, bailarako herri gehienetan festak udan ospatzen dira. Festak herriko santuaren edo amaberjinairen omenean ospatzen dira.

26. Udako festak II (UZT-007/005)

Uztarrozeko festak ere udan izaten dira eta lau egun irauten dute. Gazteak Erronkariko garai bateko jantzi folklorikoez atonduta Elizara joaten dira. Udan astebururo bailarako herriren bateko festak izaten dira.

27. Udan parrandaz gain, zer egiten dute Uztarrozeko gazteek? (Uzt-007/007)

Udan parrandaz gain, mendira ere joaten dira gazteak. Hala ere, gazteek lan egiteko ere aprobetxatzen dute uda. Neguan, gazte asko eskiatzera joaten dira euren denbora librean.

28. Neguko denbora-pasa: eskia (Uzt-007/008)

Mirenek txikitatik ikasi du eskiatzen eta orain, berriz hasi da ikastaroetara joaten. Eskia gustoko duenak gozatu egiten du, baina kirol gogorra dela azpimarratzen du.

29. Udako lanak (Uzt-007/009)

Udako lanak ostalaritzari lotutakoak dira. Lana lortzeko metodoa ahoz-ahokoa da. Bailarakoa izateak ez du lana lortzea ziurtatzen.

30. Kobertura eta seinale kontuak (Uzt-007/010)

Telefono zein internet seinaleei dagokionez, Uztarrozen ez da erraza telefono seinalea aurkitzea. Mirenek etxean WIFI-rik (kablerik gabe seinalerik) ez duen arren, telefono seinale ona du. Beste herrietan bestelako da, Bidankozen ez daki seinalerik ba ote dagoen. Jonek ezetz dio atzetik.

31. Uztarrozen, San Juan eta San Roke egunetan ttun-ttuna (Uzt-010/001)

Herriko festak noiz izaten ziren. "Ttun-ttuna", txistularia.

32. Uztarrozeko Eguberri aldiko kanta ustez zaharra (Uzt-011/001)

Uztarrozeko Eguberrietako kanta ustez zaharra.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-05-26

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com